

**CONCOURS DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

« Concours Externe Spécial »
« Second Concours Interne Spécial »

Épreuve écrite
BASQUE

Du vendredi 21 avril 2017 de 14h30 à 17h30

Durée : 3 H - Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4
Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

San Juan baleontzia berpizteko garaia heldu zaie Albaola eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzari

Xarma handiko Pasaia txoko batean, San Pedroko Puntetako Ondartxon, itsas ondarearen inguruko hainbat egitasmo eder erdituko ditu laster Albaola elkarteak. Ez da bere lehen haurdunaldia; ontzigintza tradizionalaren eta, oro har, itsas kulturaren berreskuratzeari ekin zionetik, luzea, eta pasioz betetakoa, izan da nabigazioa, eta fruitu gozoak eman ditu.

Baina, apirilean jaioko dena luzaroan bilatutako ametsa da, egi bihurtuta: Albaola Itsas Kultur Faktoriak bere ateak irekiko ditu eta, bertan, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutza programari esker, San Juan baleontzi historikoaren erreplikaren eraikuntzari buru-belarri ekingo dio elkarteak, publikoaren aurrean garatuko den bi urteko prozesuan.

1565. urtean Kanadako Red Bay badian hondoratu zen San Juan berpizteko unea iritsi da. Kultur Hiriburutzaren enbaxada mugikorra izango da eta urte horretan, 2016an, hizkuntza gutxiak dituzten europar herrialdeak lotuko dituen bidaia egingo du. Albaolaren egoitzak guztiz eraberrituta egingo dio aurre hainbesteko garrantzia duen proiektuari. Horrela bada, 2010. urtean Ondartxo Museo gisa zabalduta zen espazioa Albaola Itsas Kultur Faktoria bihurtzeko obretan ari dira orain.

Apirileko inaugurazioaren atarian, Pasaia badiako puntu honetara hurbildu da HIRIAN, Xabier Agote Albaolako lehendakaria eta Jon Maia Donostia 2016ko San Juan baleontziaren zuzendariaren eskutik azpiegitura hori zer izango den ezagutzera.

Datorrenagatik poza, ilusioa eta epe jakinek ezarri ohi duten presio puntua arnas daiteke kultur espazio handi honetan. Kanpoaldean altxatzen ari diren egurrezko estalpea deigarria da oso. Eraikitze prozesuan zehar baleontzia babesteko sortu dute. Zurak protagonismo berezia du Albaola Itsas Kultur Faktoria osoan.

«Eguraren erabilera egokiaren gaiari astindu bat eman nahi diogu. Paisajistikoki txukunagoa izan daiteke sarri eta, basoen kudeaketa arduratsuan oinarrituta dagoenean, ez dio ingurumenari kalterik eragiten», adierazi du Xabier Agotek.

Baleontzia eraikitze erabiliko duten egurra Sakanako hariztietakoa da. Iaz 200 haritz horien hautaketa eta mozketak selektiboak egin zen. 2014 honetan Zerainen zerratu zituzte.

Arotz taldeak bisitarien aurrean sortuko ditu piezak, Kanadatik jasotako planoak jarraituz; fideltasun osoz, beraz. Publikoak lan horien guztien ikuspegi zabala izango du.

Horretarako, estalpearen inguruan pasabide bat ere sortu dute. Bisitari asko ontziz iritsiko dira, Donostiatik zein Trintxerpetik, Pasaia Porto Agintaritzak Ondartxon eraikiko duen ontziralekura.

FAKTORIAN PROIEKTU UGARI

Faktoria kontzeptuak ondo erantzuten dio Albaolaren filosofiari. Ontzigintza tradizionalaren inguruan, itsas kulturaren alor ezberdinak modu bizian lantzen ditu elkarteak. Ez da harrigarria, zentzu horretan, arotzen lan espazioari eman nahi dioten beste erabilera. «Inor lanean ari ez denean, hainbat ikuskizun eskaini nahi ditugu hemen. Antzezlanak, bertso saioak eta beste», jakinarazi digu Agotek. Itsas Antzokia.

Hori guztia eta askoz ere gehiago izango da Ondartxo berria. Erakusketa gune zabal bat diseinatu dute, zeinean balearen ehiza, Pasaian eraikia izan zen San Juan ontziaren ezaugarriak eta materialak, haren hondoratzea eta bere garaian egin zitzaion itsaspeko arkeologia ikerketaren berri emango den, besteak beste. Bertan izango da Paco Gomez eta Joseba Burdainekek eraiki duten XVI.eko ontzi horren maketa ederra.

Modelismoak ere bere txokoa baitu Albaola Itsas Faktorian. Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteak ontzi maketagileen topagunea bertan dago. Gustura ari dira lanean gure aldizkariak bisita egin duenean.

Anitza da Albaolaren mundua. Aisialdi hezitzaile, euskaldun eta parte-hartzailea sustatzen duen Irrien Lagunak egitasmoari ere bere txokoa gorde diote. Pasaia eta inguruko haur

eta gazteek emango diote forma espazio horri, batez ere itsasoari lotutako ekintzak garatzeko.

Bestetik, ontzigintza eskola internazionala aspaldiko proiektua du Albaolak. Faktorian bertan eraikitzen ari diren aterpetxea baliabide interesgarria izango dute munduko txoko ezberdinetatik iristen diren ikasleek.

PROZESUA BALOREAN JARRI

Jon Maiaren hitzetan, abiatzen ari den abentura honetatik lortuko den emaitza, San Juan baleontzia bera, oso garrantzitsua da. Proiektu bakana eta errepikaezina. Eskaintza singularra haren eraikuntza jarraitu nahi duten bisitariantzat. Baina, ontziaren aitzakipean, «zeharkakoak eta sakonagoak diren hainbat helburu» lortu nahi dituzte.

Izan ere, 2016ko programak Donostiatik ateratzeko eta lurraldean zehar proiektuak hedatzeko bokazioa du, ingurunean eragiteko gaitasuna bilatuz. Kultur eta gizarte eragileekin elkarlana sustatzea du xede. Kasu honetan, «behar handiak dituen Pasaia badiako kultur eragile batena, Albaolarena, izan da ontzia eraikitzeke egitasmoa. Eta badiaren biziberritzean kultur azpiegitura garrantzitsua izatea espero dugu».

Maiak azpimarratu duenez, emaitzatik haratago, «prozesua balorean jartzea» bultzatuko dute. Hainbat bide jorratuz lortuko dute hori. Batetik, eraikuntza prozesua bisitagarria eginez. Baita proiektu honen inguruan hornitzaile sare bat eta itsas kulturarekin zerikusia duen kultur azpiegitura sare bat eratuz ere.

«Horrela, eraikuntza prozesuak euskal itsas kultura dinamizatzeko, sare berriak sortzeko, eskaintza berriak eta bisitari fluxu berriak eragiteko eta Donostia 2016ren eragina lurraldean hedatzeko balio du», azaldu du Jon Maiak. «Lan egiteko modu hori berritzailea eta konplexua da, eta Kultur Hiriburutzaren onurak banatzea ahalbidetzen du», adierazi du.

Eva Domingo, 2014eko otsailaren 17ko *HIRIAN* aldizkariaren weborrian.

COMMENTAIRE GUIDÉ

Testu honen azterketa eginen duzu gogoeta-ardatz hauen inguruan :

1. Balea ihizia eta orohar arrantzaren garrantzia Euskal Herrian.
2. San Juan baleontziaren berpiztearen interesa.
3. Albaola Itsas Kultur Faktoria zentroaren eragina Pasaia bezalako herri batean

TRADUCTION

Artikulu honen itzulpena eginen duzu 10. lerrotik 18. lerrora, "1565 urtean Kanadako... zer izango den ezagutzera."